

**Athletic** ♦ Villabonako erdilaria titular izan zen estreinakoz aurtengo Liga txapelketan

# Imaz pozik itzuleran

«Hemendik aurrera aukera gehiago izango dira guztiontzat»

Ramon Basaldua / Bilbo

ANDONI IMAZ pozarren dago eta badu motiborik horrela egoteko. Izan ere, Villabonako erdilaria titular izan zen Celtaren aurkako partiduan, joan zen otsailetik Ligan hasierako hamaikakotik kanpo egon ondoren. «Duela bi hilabete entrenatzaileak esan zidan abendu alderako jokatzeoko aukera izango nuela eta ostiralean aurreratu zidan Balaidosen titular izango nintzela. Ligan hasieratik jokatu dudun lehenengo partidua izan da eta fisikoki oso ondo ikusi nuen nire burua», adierazi zuen atzo Andoni Imazek, zuri-gorriek atzo goizean Lezaman egin zuten entrenamenduaren ostean.

Andoni Imazi ebakuntza egin zioten belaunean iragan otsailean. Orduetik eta hona, Melillaren aurkako Kopako bi partiduetan eta Rayoren aurkako norgehiagokako azken



MIGUEL RIOPA / EFE

Andoni Imaz, aurrean Mari Lacruz eta Gustavo Lopez dituela, herenegungo partiduan.

hamar minutuetan jokatzeoko aukera baino ez du izan. Imazek dio hemendik aurrera jokatzeoko aukera gehiago izango direla plantillako

jokalari guztientzat. «Partidu asko jokatuko dugu egun gutxiren buruan, eta jokatzeoko aukera gehiago izango dira». Rayo Vallecanoren

aurkako kanporaketari begira, Imazek dio Athleticen aurkaria baino gehiago dela erakutsi beharko duela Kopan aurrera egiteko.

## Edu Alonsok Athleticen jarraitu nahi du

Edu Alonsok Athleticen duen kontratua ekainean amaitzen da, eta bi aldeak negoziatzen ari dira. Orain arte ez dute akordiorik lortu eta urtarrilean ekingo diote berriz berba egiteari. Jokalaria itxaropentsu azaldu zen atzo Lezaman, eta garbi esan zuen talde zuri-gorrian jarraitu nahi duela.

## Ateak itxita egingo dute saioa gaur Lezaman

Athleticeko jokalariek a-teak itxita entrenatuko dira gaur Lezaman, 17:30etan. Luis Fernandezek plantillako jokalariek guztiak ditu prest —Jose Mari izan ezik— zuri-gorriek Rayoren aurkako kanporaketarako joaneko partidurako.

## Rayoko Clotetek ez du jokatuko San Mamesen

Rayo Vallecanoko Clotet atzelariak ezingo du jokatuko bihar Athleticen aurkako Kopako partiduan. Jokalariek zaintiratu izan zuten atzoko entrenamenduan eta ekografia egingo diote gaur.

### harmailetatik begira

## 12 puntu salbaziorako

Enekoitz Esnaola

ORAIN bosgarren dagoela, zein da Alavesen helburua denboraldi honetan? Hauxe: Espainiako Lehen Mailan segitzea. Eta eskuan dauka. Horratx, bestela, datu argigarri bat: denboraldi honetan hiru azkenak zuzenean jaitziko dira, eta, konparazio baterako, iaz 18.ak —Villarrealek— 36 punturekin bukatu zuen, eta Alavesek une hauetan 24 ditu. Gora begiratzeko *eskubidearekin* da taldea, baina, ororen gainetik, lehenbailehen 12 puntu horiek irabazi behar ditu.

Beste konparazio baterako, Alavesek azkeneko bi denboraldietako Mallorca dirudiela esango dute batzuek agian. Biak klub apalak dira, eta Mallorca garaioetan sailkapeneko puntan kokatuta zegoen azken bi denboraldietan. Baina hango entrenatzaileak —Hector Cuperrek—

garbi esaten zuen zein zen taldearen helburua: «Salbazioa da lehendabizi lortu behar duguna». Jendeak orduan esaten zion anbizio handiagoa behar duela entrenatzaileak kasu horietan. Cuperrek ezetz, bazekiela nolako taldea zen Mallorca, eta hankak lurrean eduki behar zirela, hankasartzerik ez egiteko edota azkenean hankazgora ez erortzeko. Azkenean, salbazioa lortzeaz gain, Mallorcan Europako txapelketarako txartelak ere irabazi zituen Cuperrekin azkeneko bi denboraldietan.

Alaves ere Europako tokietan dago orain; UEFAkoan, hain zuzen. Saillkapenari eta klubaren ahalmenari so egin da, Alaves da —Rayorekin batera— orduko Mallorca, baina ez du pentsatu behar orduan Mallorcan irabazi zuena irabaziko duenik. Izan

ere, seguru Cuperrek berak ere ez zuela pentsatzen hain jokalaririk onak zituenik, bigarren denboraldian ere puntan bukatu zutelako —hirugarren; aurrenekoan bosgarren—. Orain ere ederki ari da Mallorca, Fernando Vazquezekin, eta hori guztia ez da kasualitatea. Alavesek ez dituen jokalariek zeuzkan eta dauzka Mallorcan: Argentinako selekzioko atezaina zen Roa, Burgos ere hala da egun, Ivan Campo Real Madrideren fitxatu zuen, Diego Tristan aurki fitxatuko du handi batek, Engonga Espainiako selekzioan dabil, Lauren Italiako Ligara joango da laster, Romero Deportivo lidean dabil, Stankovic Jugoslaviako selekzioko jokalaria da...

Beraz, konparaziorik ez. Alaves Alaves da. Hori bai, *patata mekanikoa*.



TXEMA FERNANDEZ / EFE

Prats eta Javi Moreno, herenegun, Alaves-Betis partiduan.

## Itxaropentsu egoteko arrazoiak, bai

Ordenarik gabeko ekipoa izan zen Reala herenegun. Non jokatuko zuen De Paulak: eskuinean edo aurrean? Eta Sa Pintok? Eskuin laterala zirudien hark bigarren zatian... Flavio, Mauro Silva eta Jokanovicek armiarma-sarea osatu zuten, eta Clementek bakarrik utzi zuen euskarran Gomez. Behe-behetik gertu dago Reala, baina Clementek esan du ez duela beldurrik. Izan ere, badago itxaropenerako arrazoirik. Taldea hasi da lehen ukutuan jokatzen: igandean Antiak Albertori, Albertok Guerrerori, eta honek gola.

## Pattal dabil Frank de Boer

Frank de Boerrek orain dela hamar bat egun: «Min hartuta egon nintzenean, esaten zen taldeak nabaritzen zuela nik ez jokatzea. Ordea, nik Mallorca eta Valenciaren kontra jokatuko berri dut eta galdu egin dugu bietan». Apala mutila! Orain berririo galdu du Barçak, eta ez zen ederki ibili De Boer bera. Ez du esango, ordea, bera gaizki dabilenik.